



Bilboko Burdin Hesia

Defentsa lerroa

1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondoren, tropa matxinatuak abiada bizian ari ziren aurrera egiten, Bizkaia mehatxupearan hartuz. Hori ikusirik, Euskal Gobernuak erabaki zuen Bizkaian ordura arte inoiz eraiki gabeko azpiegiturarik handiena sortzea, hain zuzen ere ferra-itxurako defentsa-lerro bat, 80 km luze gutxi gorabehera, lubakiek, alanbre-hesiek, metrailadore-edo mortero-kokaguneez, gotorlekuez, babeslekuez eta aterpeek osatutakoa.

Bilbo eta inguruak babesteko helburua zuen, gune estrategikoak barne, hala nola Abrako portua, Lamiakoko eta Sondikako aerodromoak, eta Bilboko ura (Zolloko urtegia) eta elektrizitatea (Burtzeñako zentrala) hornitzeko azpiegitura nagusiak.

Lanak 1936ko urrian hasi ziren, milaka pertsonaren parte-hartzearekin. Gehienak errefuxiatu eta zibilak ziren, adin militarretik kanpo zeuden 18 urtetik beherako eta 30 urtetik gorako gizonak eta adin guztietako emakumeak. Zuzendariez gain, langile kualifikatuak, peoiek, garraiatzaileak eta zaindarien ere jardun zuten lanean, besteak beste.





Burdin Hesiaz gain, beste defentsa-lerro batzuk planifikatu eta egikaritu ziren, esaterako Ingeles lerroa eta Artxanda, lehena Lemoizen eta Maruri-Jataberen artean, eta bigarrena, berriz, Sondikako, Bilboko eta Zamudioko mendietan.

Ingeles lerroa

Jata mendiarren inguruan

Iparraldetik Burdin Hesira hurbiltzen ari ziren tropa nazionalak geldiarazteko helburuarekin, Ingeles lerroa eraiki zen Jata mendiarren inguruan. Gobernu britainiarrak Burdin Hesia ipar-ekialdetik indartu beharra zegoela uste zuelako eman zioten izen hori, dirudienez.



Artxanda

*Bilbo hartu aurretiko
azken bi egunak*

Gaztelumendiko eremuan Burdin Hesia hautsi (Larrabetzu, 1937-06-12) baino lehenago, Euskal Gobernuak Artxandako gailur-lerroan azken gotorleku-lerro bat eraikitzeke agindua emana zuen. Bilbo erori (1937-06-19) aurreko azken borrokak bertan izan ziren.



BILBOKO BURDIN HESIA

m
Memoria
ibilbideak
Itinerarios
de la Memoria
gogora

MONUMENTU MULTZOA
Euskal Kultura Ondarea
CONJUNTO MONUMENTAL
Patrimonio Cultural Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ARGAZKI MEMORIA

Gaur egunera heldu diren garai hartako Burdin Hesiaren argazki gehienak Indalecio Ojanguren (Eibar, 1887-1972) argazkilariarenak dira.

mj
Memoria
ibilbideak
Itinerarios
de la Memoria
gogora

MONUMENTU MULTZOA
Euskal Kultura Ondarea
CONJUNTO MONUMENTAL
Patrimonio Cultural Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Minazuloetako babeslekua (Sondika)



Lubakiak eta alanbre-hesiak (Galdakao)



Artxandako errotan kalteak (Sondika)



Gezilehodun hormigoizko horma (Larrabetzu)



Metrailadore kokalekua (Mungia).
Atzean Jata mendia



Zolloko lubakiak (Arrankudiaga-Zollo)



Metrailadore kokalekua (Cüeñes)



Uxilako gotortutako multzoa
(Ugao-Miraballes)



Metrailadore kokalekua (Ugao-Miraballes)



Lubakiak (Mungia)



Gotortutako baserria (Larrabetzu)

Atzo eta gaur



Pikene baserria.
Larrabetzu.



Gotortutako multzoa.
Uxila. Ugao-Miraballes.